



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko azaroaren 8a

131. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, mendekotasuna duten pertsonen zerbitzuen eskari txikiagoa egin arren prestazio ekonomikoak gehitzeari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (2. or.).
- Galdera, Nafarroatik kanpoko klusterrei atxikitzea sustatzeari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (3. or.).
- Galdera, Banda Zabalaran 2016-2021 aldirako Plan Zuzendariari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (3. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren 2017rako lan-eskaintza publikoari buruzkoa. David Anaut Peña jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, Nafarroaren estatus politikoa zehazteko asmoz Foruaren Hobekuntza aldatzeari buruzkoa. María Victoria Chivite Navascués andreak egin du (5. or.).
- Galdera, Nafarroara errepidetik sartzean dauden kartelak, euskarazko izena ere erakuts dezaten, aldatzeari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (5. or.).
- Galdera, bai zor publikoko jaulkipenengatik bai finantza-entitateekin sinatutako maileguengatik Nafarroako Foru Komunitateak duen zorpetzeari buruzkoa. Laura Pérez Ruano andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak 2016-2017 ikasturtean derrigorrezko ikasketen ondoko unibertsitatez kanpoko ikasketak eta unibertsitate-ikasketak egiten dituzten ikasleentzat eman beharreko Beken eta Laguntzen Lehiaketa Orokorra urriaren 31n deitzeko arrazoiei buruzkoa. María Victoria Chivite Navascués andreak egin du (7. or.).
- Galdera, 2016-2017 ikasturterako beken deialdia aldatzeko arrazoiei buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Lanbide Heziketa arautuko ikasketen eskaintza handitzeko eta/edo aldatzeko Hezkuntza Departamentuak dituen aurreikuspenei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (8. or.).
- Galdera, jakitekoa, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren negoziatioari dagokionez, zein diren jarduketetarako eta negoziatorako egutegia eta gizarteari jakinarazteko ekimenak, Nafarroako Gobernuak aurreikusten dituenak. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Tuterako Reina Sofía ospitalean “teleiktusa” izeneko sistema ezarri izanari buruzkoa. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (9. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, mendekotasuna duten pertsonen zerbitzuen eskari txikiagoa egin arren prestazio ekonomikoak gehitzeari buruzkoa.*NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, mendekotasuna duten pertsonen zerbitzuen eskari txikiagoa egin arren prestazio ekonomikoak gehitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Nuria Medina Santosek, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babese-

an, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Erabilgarri dauden datu eguneratuek agertzen dute familiaren esparruko zainketetarako eta zaintzaile ez-profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoak zerbitzuen eskariaren gain-gainetik daudela. Horrenbestez, legeak ohiz kanpokotzat jotzen duena Nafarroan orokorra da.

– Zer balorazio egiten du Eskubide Sozialetako kontseilariak familiaren esparruko zainketetarako eta zaintzaile ez-profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoek Nafarroan agertzen duten gehitzeko joera kezkarriari buruz, mendekotasuna duten pertsonen zerbitzuen eskari txikiagoa egin arren?

– Zer neurri edo jarduketa abiarazten ari da Eskubide Sozialetako Departamentua joera hori leheneratzeko?

Iruñean, 2016ko urriaren 28an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

Galdera, Nafarroatik kanpoko klusterrei atxikitzea sustatzeari buruzkoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroatik kanpoko klusterrei atxikitzea sustatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Guzmán Garmendia Pérezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren zuzendari nagusiaren 677/2016 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Gobernuak kluster, prekluster eta enpresei elkarlanerako proiektuen gastuetarako diru-laguntzak emateko deialdia onetsi zuen.

Nafarroako Gobernuaren beraren datuen arabera, 23 eskabide aurkeztu eta onartu dira horretan: A ereduko 3, B ereduko 4, C ereduko 2 eta D ereduko 14.

Deialdiaren D ereduak izan duen arrakasta ikusita, uste al du Nafarroako Gobernuak gure industriaren eta enpresaren etorkizunerako onuragarria dela, gure Komunitatearen barnean kluster berekiak sustatu beharrean, Nafarroatik kanpoko klusterrei atxikitzea sustatzen duen politika?

Iruñean, 2016ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, Banda Zabalaren 2016-2021 aldirako Plan Zuzendariari buruzkoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Banda Zabalaren 2016-2021 aldirako Plan Zuzendariari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Guzmán Garmendia Pérezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak Banda Zabalaren 2016-2021 aldirako Plan Zuzentzailea aurkeztu berri du.

Uste al du Nafarroako Gobernuak Banda Zabalaren 2016-2021 aldirako Plan Zuzentzaileak erantzuten diela Nafarroako herritarrek eta enpresek hurrengo urteetako bilakaera teknologikoari bermekin aurre egiteko dituzten benetako beharri zehatzak?

Iruñean, 2016ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren 2017rako lan- eskaintza publikoari buruzkoa.

DAVID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea David Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren 2017rako lan-eskaintza publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Dabid Anaut Peñak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako ahozko galdera egin nahi du Osoko Bilkuran Nafarroako Gobernuak erantzun dezan.

Osasunbideak 2017. urtean Lan Eskaintza Publikoa egiteko asmoa adierazi du. 300 lanpostutik gora, tartean erizainak, Oinarrizko Osasun Laguntzako medikuak, pediatriak, beste espeziali-

tate batzuetako medikuak, psikologia klinikokoak, fisioterapeutak, emaginak eta dietistak. Lanpostu horiek beteko dituzten profesionalak Nafarroa osoko herritarrak artatu beharko dituzte, tartean milaka euskaldun.

Nafarroako Gobernua sustengatzen duten indar politikoei sinatutako akordio programatikoak honela dio, besteak beste: "beharrezkoa da hizkuntza-politika berri bat aplikatzea, herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzeko eta hizkuntza-normalizazioaren bidean aurrera egiteko".

Gobernuak eginen duen LEP horrek, hain zuzen ere, herritar horien guztien hizkuntza-eskubideetan eragina izanen du, langile horiek egin beharko baitiete arreta herritar guztiei, euskaldunak barne.

Hori guztia kontuan hartuta,

Nola bermatuko du Nafarroako Gobernuak Osasunbidean eginen den LEP hori akordio programatikoan esandakoarekin bat etorriko dela eta euskaldunen hizkuntza-eskubideak bermatzeko egokia izanen dela?

Iruñean, 2016ko urriaren 28an

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

Galdera, Nafarroaren estatus politikoa zehazteko asmoz Foruaren Hobekuntza aldatzeari buruzkoa.

MARÍA VICTORIA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Chivite Navascués andreak aurkeztutako galdera, Nafarroaren estatus politikoa zehazteko asmoz Foruaren Hobekuntza aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldearen eledun María Chivite Navascués, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Erkidegoaren egoerari buruzko urriaren 26ko eta 27ko eztabaidan, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeak erabaki proposamen bat aurkeztu zuen Nafarroaren estatus politikoa zehazte aldera Foruaren Hobekuntza aldatzeari buruz, eta hori onetsi egin zen.

Hona hemen Nafarroako Gobernuko lehendakariari egiten diogun galdera:

Zer urrats emanen ditu Nafarroako Gobernuak arlo honetan?

Iruñean, 2016ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, Nafarroara errepidetik sartzean dauden kartelak, euskarazko izena ere erakuts dezaten, aldatzeari buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroara errepidetik sartzean dauden kartelak, euskarazko izena ere erakuts dezaten, aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkartearen eledun Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomikoko lehendakariorde Manu Ayerdik Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein da, euskarazko izena ere erakuts dezaten, Nafarroara errepidetik sartzean dauden kartelak aldatzeko balioesten den kostua, zein kontusail dago bideratuta horretarako 2017ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, eta zein da aldaketa hori egiteko dagoen presa?

Iruñean, 2016ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, bai zor publikoko jaulkipenengatik bai finantza-entitateekin sinatutako maileguengatik Nafarroako Foru Komunitateak duen zorpetzeari buruzkoa.

LAURA PÉREZ RUANO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Pérez Ruano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, bai zor publikoko jaulkipenengatik bai finantza-entitateekin sinatutako maileguengatik Nafarroako Foru Komunitateak duen zorpetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Laura Pérez Ruano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak

ahoz erantzun dezan Legebiltzarreko hurrengo Osoko Bilkuran:

Bai zor publikoko jaulkipenengatik bai finantza-entitateekin sinatutako maileguengatik Nafarroako Foru Komunitateak duen zorpetzeari buruz jaso diren datuak ikusita, ba al du Departamentuak lan-ildo bat, argi eta garbi merkatuaren gainetik dauden interesak dituzten maileguak –eta, bereziki, 2011n sinatutakoak, baina beste batzuk ere bai– berriz negoziatzeko? Beste alternatibarik baloratzen al da zor horren finantza-eragina murrizteko?

Halaber, zer irizpide edo jarraibide du Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak, hala denean, finantza-entitateekin beste kreditu edo mailegu batzuk sinatzeko? Aurreko eragiketei aplikatutako interes-tasak murriztearen baldintzapean jar liteke dagoeneko Nafarroako Gobernuaren mailegu-emaike diren entitateekin kreditu edo mailegu berriak sinatzeko aukera, beharrezkoa izanez gero?

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Laura Pérez Ruano

Galdera, Nafarroako Gobernuak 2016-2017 ikasturtean derrigorrezko ikasketen ondoko unibertsitatez kanpoko ikasketak eta unibertsitate-ikasketak egiten dituzten ikasleentzat eman beharreko Beken eta Laguntzen Lehiaketa Orokorra urriaren 31n deitzeko arrazoiei buruzkoa.

MARÍA VICTORIA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Chivite Navascués andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuak 2016-2017 ikasturtean derrigorrezko ikasketen ondoko unibertsitatez kanpoko ikasketak eta unibertsitate-ikasketak egiten dituzten ikasleentzat eman beharreko Beken eta Laguntzen Lehiaketa Orokorra urriaren 31n deitzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderen eledun María Chivite Navascués, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, azaroaren 10eko Osoko Bilkuran erantzun dakion:

Zein arrazoi izan dira urriaren 31n deitzeko Nafarroako Gobernuak 2016-2017 ikasturtean derrigorrezko ikasketen ondoko unibertsitatez kanpoko ikasketak eta unibertsitate-ikasketak egiten dituzten ikasleentzat eman beharreko Beken eta Laguntzen Lehiaketa Orokorra, arau-aldaketak agertzen dituen?

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Eleduna: María Chivite Navascués

Galdera, 2016-2017 ikasturterako beken deialdia aldatzeko arrazoiei buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, 2016-2017 ikasturterako beken deialdia aldatzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikita dagoen José Javier Esparza Abaurreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Zer arrazoik eragin dute Hezkuntza Departamentuak 2016-2017 ikasturterako beken deialdia aldatzea, behin ikasturtea hasi ondoren?

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Lanbide Heziketa arautuko ikasketen eskaintza handitzeko eta/edo aldatzeko Hezkuntza Departamentuak dituen aurreikuspenei buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Lanbide Heziketa arautuko ikasketen eskaintza handitzeko eta/edo aldatzeko Hezkuntza Departamentuak dituen aurreikuspenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarreko parlamentari Marisa De Simón Caballero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak Parlamentuko 2016ko azaroaren 10eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer aurreikuspen du Hezkuntza Departamentuak Lanbide Heziketa arautuko ikasketen eskaintza handitzeko eta/edo aldatzeko? Aurreikuspenen arabera, erdi mailako eta goi mailako Lanbide Heziketako zer ziklo berri ezarriko dira hurrengo bi ikasturteetan eta zer ikastetxetan?

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, jakitekoa, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren negoziatioari dagokionez, zein diren jarduketetarako eta negoziatorako egutegia eta gizarteari jakinarazteko ekimenak, Nafarroako Gobernuak aurreikusten dituenak.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren negoziatioari dagokionez, zein diren jarduketetarako eta negoziatorako egutegia eta gizarteari jakinarazteko ekimenak, Nafarroako Gobernuak aurreikusten dituenak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak erantzun dezan:

Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren negoziatioari dagokionez, parlamentari honek jakin nahi du zein diren jarduketetarako eta negoziatorako egutegia eta gizarteari jakinarazteko ekimenak, Nafarroako Gobernuak aurreikusten dituenak.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Tuterako Reina Sofía ospitalean “teleiktusa” izeneko sistema ezarri izanari buruzkoa.

KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Tuterako Reina Sofía ospitalean “teleiktusa” izeneko sistema ezarri izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko kide Koldo Martínez Urionabarrenetxeak, Legebiltzarreko Errege-

lamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak 2016ko azaroaren 10ean, ostegunean, egin beharreko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Azaroaren 4an, ostiralean, jakin genuen Tuterako Reina Sofía ospitalean “teleiktusa” izeneko sistema ezarri berri dela. Ekimen berritzailea dela ikusita, hona hemen Nafarroako Gobernuari egiten diogun galdera:

– Zer arrazoik eragin dute hori ezartzea? Zer ondorio izanen omen ditu ezarpenak pazienteen tratamenduan?

Iruñean, 2016ko azaroaren 7an

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

